



EUSKALERIKO BERIAK



GIPUZKOA

PUZKOA'KO UNION REGIONALISTA'KOAK ASARRE

Erregezaileak osatzen duten alderdia Union Regionalista dalakoa. Aldun-auteskundera aurtegi aldungai nortzuk egingo ote dituzten ikusi bearez asir ziranen Soraluze aukeratu zuten batzuk. Etziran ordeaz guztiak irizti ontakoa.

Azkenik Maestu artu zuten, baño, au ere ez guztiak atseginak.

Orregatik bi zati edo egin ziran alderdian eta geroz banatuago ote dabilen zuzumra da. Batzar nagusia egin zuten joan dan aste ontan. Batzorde bat aukeratu zuten gauza ongi ikasi ta bi alderdiak adiskidetzeko asmoz.

Baño ala ere batasunik lortuko ez duten iritzia dago ta len alderdi bakarra zana, bitan banatu ote dan.

BERRIZ ERE BAI

Berriz ere auzian dira Donostiko kayeko nagusi-langileak. Oporrera joan nai zuten, baño, jaurleri edo gobernadoreak bereganatu ta batzarrak egin zuten.

Oraingoz beintzat inean jartetzeko erabakia artu zuten eta gerc idatze bakoitzak bere asmo ta eskariak eramatekotan gelditu ziran.

Beraz oraindik auzia amaitu gabe gelditzen da. Gorri-jendeak indarra artu zun kayean eta oiek aurrera sarzen diran tokietan paketik ez.

BESTE ERABAKIA

Irun eta Tolosa erkietan Telefono-automatico jartzekotan omen dabilta. Ortan milloi batzuk eralgiko omen dira ordeaz. Eta orrenbeste birtza osterata biltzeko urte asko bearko omen dira.

Baño gauzak ez aldatzera beste amar urte eskero emengo urrutizkiefien jabe España'ko estadoa egingo da.

Orregatik ere ari litzazeko eskatu

EI EIZKIZUNAK

Iru Erregeen egunean gendun Miren alabak geure illeroko eleizkizuna. Arratsaldean agurtza ondoren urtero oi dan bezela billera egin zan.

EUSKEL IZENA

Aizpuru basetxean izan duten aurtxoari, ugutzatzen Miren Arantzazu euskel-izena jarri diote eta beragatik Emakume Abertzaleak esketzi diote saski edo «kanastilla» polit bat.

DABILTZANAK

Opor aldian beren sendietan igaro ondoren Juan dira ikastaldia egitera Azkueta On Jesus apaiz gaztea Komillas'era eta Arakistain'dar Faustina andereñoa Gazteiz'era.

EGUTEGIA

Aspaldian itxoiten genion aurtengo ARGIA-ren Egutegia gure esku artean degu. Saririk ez ordeaz eta orretarako jarri duten Joxe Migel'en bazkariak naiko buru auste ematen digu.

DEYETAN

Ezkon deytan arkitzen dira emengo Lizaso'tar Joxe Ramon Donosti'ko betekin eta Itziar txilikua, Azpeitiar betekin.

GAXORIK

Eleizakua artuta Pasain arkitzen da gure erretoze maite Agote'tar On Pedro'ren ama. Irakurle otol daigun Jaunari bere naya ala bada lenbaillen sendatu eta berriro gure artera etorri dedin.

KAITANA

ALBIZTUR

IGAZKO URTEAN

Urte ta ill onen lenengo igandeko Meza nagusian gure Erretoze jaunak deitu zigunenez, igazko urtean emen, jayo ta batalatuak 19, ezkontzak 4 eta illak 5 izan ziran.

AURTENGO EGUTEGIAK DAKARRPEN ASMAKIZUNA

Bakurgai edereez jantzia datorren Egutegi orrek dakarren aurtengo asmakizuna zaila dala ba' dirudi ere, saritxoan bat irabazten ote degun, sailatu bear degu arrayopola.

Joxe Migel'ek bazkari artan jakiz bazuen aukera, aukera artan zein autu zitun gnork eman orain tankera? Bada-espada saia gaitezten ere bat eta bestera,

la orrela ekartzen degun

beaz omen diote Madrid-aldekoa. Automatico ipintzen eralgiko diranak osterata jaso arte gutxienez.

BESTE ERABAKIA

Azkeneko bi egundietan gertatu da, berriz gertatu ez dedin Errederi'n Oyartzun-lbaiaren ur-bidean lanak egitea erabaki da.

Egitarra eskuarteat dute ta ontzat eman ere egin dute. Lantegi guttirako 76.400 laurleko bearko omen dira. Orain ori ontzat ematen duten ikusi bear. Lan oiek orain bereala-koak dira. Gerora aundiagoak egin bear dira, baño, beste lan oiek Madrid'en bizkar joango omen dira.

ANTZEZLARI-TALDEEN BATZALDIA

Epaillaren 26'rako jarri dute «Euskaltzaleak» antzezlari-taldeen batzaldia. Egun ortantxe ospatuko baita EUSKO-ANTZERTI-EGUNA. Bi batzaldi bezela izango dira. Batean orain sarituta agertu dan Karraskedo Olarraren «ETXE-ALDAKETA» antzerkia ongien nortzuk antzeztu. Beste berriz bakoitzak nai dun antzerkia aukeratu ta ederkien nortzuk egin.

Jai politik ikusiko ditugu egun ortan edo geyagotan ere bai Poxpolinen Antzeztokian.

Lana egin, gertutzen an-or-emenka ain ederki ari zeren antzezlari-taldeak.

ALTZA'KO UDALA

Aspaldian erriak aukeratutako udala bazartua zegan Altza'ko errian ere. Orain ordeaz beren jariekutara igotzekoak dira ta beren tokietan zeu den agintadun izunak txokora joan bearrean dira. Ba zan ordu!

Lan ederrik egitaki izan bear dute sasi-agintari oiek Altza'ko errian.

Oien okerrak zuzentzen izango dute lan ederra orain berriro sarzen diranak.

saritxoan bat errira.

JAIK ETA OTZAK

Jai asko eta otz aundiak izan ditugu aldi ontan. Jaiak igaro ziran eta otzak jarraitzen digute. Jai arratsetan paketsu eta lo gozoan geundenak esnarazten, errenka ibili oi diran gau-txori zabarren zaratak nabaitu genitun. Labea bero zeukaten, noski, zaratari oiek.

Jai arratsetan goiz etxeratzen oitu gaitezten mutillak, eta gañera izan bear degu apalak edo umillak.

Gau-txori arro dabilzanetan sarri oi dira naspillak, tezi gabeko gaitzadunetan kirtenak eta txakillak.

LUISTAR

BAR-RESTAURANT

Au r e a

Ongi ta merke jaten da etxe ontan

Errioja'ko ardo bikañenak

Urbieta 12 - DONOSTIA

URRUTIZKINA 1-25-78

ALEGI

Errege egunean, umetxoan pozgarri izan zedin Emakume Abertzaleen izenean, Euzko langille, Batzoki'ko bazkire ta gafiakoan umetxoan artean joxtallu ta goxo asko banatu ziran. Jxtaolluekin batera, aurtxo jaiaberrientzako lau arreo-txiki agertu ziran, eta Emakume Abertzaleak ain ederki ta txukun egin ta jositako arreo oiek, Euzko langille ta Batzoki'koen, euskal izena ipintzen dioten aur jai berri e mango zaizkiote.

Gero antzerki jaya izan zan Batzokian bertan.

Poxpolinek, «Ezkondutua» ta bakarrizketa («Asentxi ta Kontxes») alkarrizketa, «Uste-gabeko poza» ta txontxongilloak egin ziran. Naikua parra ta algara, egin zuten, antzerkia ikustera bildu ziranak.

—Igande arratsaldeko lauetan, Euzko Nekazarien Bazkunen batzar bat izan zuen.

Larrañaga'tar Polikarpo ta Goñitarr Eusebi jaunak itzaldi yayo ta jatorrak egin zituzten baserritarren gorra beren gain, eta erabaki onak artu ondoren pozez gelditu ziran baserritarrak.

MOXKOLEGI

Iruña-iriko Auñeralari Diru-kutxa

Iruñeroge urte ditur Iruña'ko Udalen gerizalean napartarren gero-rako diruak begiratzen dituela.

Iruña-iriko Aurrezkitegiak, orain urte bete baño diru jartzalaze gela-go eta zointzen duena askoz gela-go. Argiki erakusten du unek, napartarren, Aurrezki-kutxa zaarrena berexten dutela.

ALTZA

ARGIA'ko zuzendari, egille, idazle eta irakurle guztiok urte berri on, aberrats eta osasuntsu bat opa dizuet.

Urte zarrak joan zaigu ta ona emen urte berria. Iges egin dun ortan zigokada gogorrak izan ditugu abertzaleak. Ongi etorriak zigokada oiek. Euzko erria gero ta beroago ta sendoago bere azkatasun bidean jartzen da. Beste urte berri bat, urte bat gutxiago gure Euzkadi'k azkatasuna bereganatzeko.

Abertzaleak, urte ontan izan dedilla gure goiburu «Jaungoikoa ta Lagi Zarra» gero ta geyago maitatzea.

GOYAZ'KO «ARANTZA» RI

Jakin ezazu «Arantza» eguerriako kapoyak gaitz egin ditutela bai, ez baigenduan, eta egun oyetako turroi eta pastelak agiñeko miña... sudurrian egin ditutela, eta gañera ez degula kukuarenik egin, baizik putriarena, egun abetan ateratzen duan eguzki gozia artzen bai degu.

«Zugaizpe»-ren lerrotxuanen zai neguan irakurtzeko ta gero idatzeko.

¿Zergatik mintzatu zera orren agur-ro? ¿Zer asi zera ortik onerario oterantz bezela zulatzen? Emakunia ote zeran nago. Berriketako gogo piz-

kat... Barkatu, «Arantzaz»

ERIOTZAK

Jaunaren besoetan il zan erri onetako seme Alkiza'tar Joseba Andoni. Bai ta ere Jaunaren besoetan il zan erri onetako seme Latasa'tar Estepan. Oriñ illetak eta illobratzen ometza aundiak izandu zituzten. G. B. Otoi irakurle orien gogo aldeaz.

Jesus M. Olareaga

SENDAGILEA SUDUR-EZTARRI-BELARRI Korreo, 50-Urrutizkinea 269 TOLOSA

ALTZOLA

BATZARRA

Jun zan larunbatian izan gendun Euzko Batzokian batzar edo «Junta» eta urteko gora-berak ikusi eta ontzat eman ondoren batzar artezkari berria onela osatu zan:

Lendakari, Etxabeta'tar Bitoren.

Idazkari, Landa'tar Alberta.

Txindi-zai, Arrizabalaga'tar Puredenti.

Batzarkide, Elortza'tar Eli eta Landa'tar Martin.

Zorionak guztiori eta zuen egin-bearra alik eta onduen betetzia opa dizuet.

¿NOIZ ARTE?

Laister gure Batzokian itzaldi edo «konferentzi» bat eratzeko asmuia izan biar dabe. Onen berri datorren astian emango det.

«POR LA LIBERTAD VASCA»

Onela deitzen zala Gallastegi'tar Eli (Gudari'k) argitaratu duan irakurgai ederrari. Irakurri nai duanak Euzko Batzokian arkitu lezake. Naiz bertan, naiz etxian irakurri dezake, baño onetarako lendakari jaunaren baimena, berriketako da. Altzolatarrak, irakurri guztiok irakurgai eder au zeuen abertzaletasuna sendotuzke.

«ARGIA»-REN ASMAKIZUNA

Au dala ta makifia bat buru-auste ba degu aurten ere bañan ¿zefiek asmatu? Izan ere urtian baño urrian «xelebrago» eta zallago jartzen dizkigute asmaketak.

«ARGIA»-REN EGUTEGIA

Agertu da gure artera eta polita benetan.

¿Ze irakurgai eder eta atseginak! Ez zaitezela ifor gelditu erosi gabe. Bekakizute, Irusta'tar Joseba'k dauka salgai.

MENDI-ZALE

Regina=Erregiñe. Consuelo euskeraz nola dan etzakigu. Arana Goiri' ren «deun ixendegi euzkotarrak» ez dakarki.—T

ARGI DONEA

euskaldunen Eleiz liburua

ARRASATE

EUSKEL IZENA

Miren Maite izen politakin ugutzatu dabe Benaga'tar Peli eta Leibar'tar Pantzeke'ren alabatxoak. Emakume barria eta ama ondo dagoz. Zorionak.

EZKONTZAK

Aste ontan ezkontzekoak dira gure lagun Dolara'tar Estepan eta Maitezgi'tar Baltzide.

—Baita laister ezkontzekoak dira Barandiaran'dar Joseba Mirena eta Ugarte'tar Anastase. Urte askotarako zorion ugariak opa dautsuet.

TXAPELKETA

Bergara erkiko Batzokien pelotaxapelketa gaur, igandez, asiko da. Gaur arratsaldian jokatu dute «Gurea»-n Aramaioquak eta amenquak.

Eurok ikusteko gar aundia dago pelotazale artian.

E. A. B.-KUAKE

Igandian izan zuten euren urteroko batzarra. Igazko urtian izaniko gora-bera guztiak ontzat artu ondoren autu zan Bazkintza Artezkari au:

Lendakari, Zaitegi'tar Irune.

Lendakari-orde, Azeptar Kesken-tzene

Idazkari, Mendizabal'dar Domeke.

Idazkari-orde, Gonzalez'tar Puredenti.

Diruzai, Uriona'tar Miren.

Batzarkideak: Garcia Gorosabel'dar Karmele, Aranburu'tar Aure eta Arkoaga'tar Jone.

Aurtengo urterako erabaki garran tziutsuak artu zituzten Arrasate'ko emakume artian JEL aldeaz gogor egiteko eta batzarkide guztiak abertzaletasuna ezagutzen dogulako alaxen uste dogu salatuko dirala, Euzkadi aldeaz.

EUSKO NEKAZARIAK

Baita gure baserritar maiteak izan zuten euren batzarra egun berean Bertaratu ziran bazkidiak asko izan ziran.

Euron Bazkuna jarri zan eskero ko artu emon guztiak ontzat arturik autu zan Bazkintza Artezkari au:

Lendakari, Arregi'tar Ander.

Lendakari-orde, Abarrategi'tar Joseba.

Idazkari, Muxika'tar Basili.

Diruzai, Otadiu'tar Pantzeke.

Batzarkideak: Ertziñeta'tar Bitor Trojaola'tar Jon M., Lazpuri'tar Ima nol eta Uribe'tar Pantzeke.

Azkenian itz batzuk zuzendu eutsen Larrañaga'tar Poli jaun argiak eta postasun aundienakin amaitu zan batzarra.

KE-PA

GABON-JAIK

Jai onak dirala-ta, gure artean bi ziri diran kanpotar asko joan dira bere nerrietara, ta bertakoak berri bertaratu. Bixigua aita ta amaren ondoan jan degu guk, Jaungoikari eskerrak, eta ederra zegoan.

Egun oietan eleizkizun aundiak izan ditugu, ta Parrokian jarri duten Bellen'aren aurrean Yosu Aurrari zortizurrena Aurizaro Doneko umeak.

Eguerrri eguneko meza Nagusian Guridit'ar Leonardo'k egin zuan itzal-di ederra.

ERIOTZA

Illaren 2'an il zan Arana'tar Lauren urte askoan errizai izan dana, gaixo-aldi motz baten ondoren. Emazte ta semeai, batez ere Koldobika'ri, nere samin-agurrik beroena. (G. B.)

—Baita Salturri baserriko Simona andre ona ere illaren 4'an il zan; 75 urte zituan eta oso ezaguna ta ondo ikusia zan erri guztian. Eliz-illetan jende asko zan. Atsekabeen laguntzen diet etxeokai; baserri auxe omen da emen inguruetan jasotako irugarren etxea.

GURE PELOTA-TXAPELKETA

Gabon-inguru onetan bi egunetan izan ditugu gure txapelketako pelotat-aldiak: igandean eta Erregetan Igandean Garate ta Sologaitoa'k

Eizagirre ta Arregi'tar Miren nexka

ELEIZAKOAK ETA AITA SANTUAREN ONESPENA ARTUTA.

G. B.

Bere ama Zelia andreak (Eizagirre'tar Gilermo'ren alarguna); anai-arreba Jose. Julian, Xabier, Jose Antonio, Maria, Franzisko, Ignazia ta Ramon jaun-andreak; osabak, lengusak eta gafiako aideak.

Idakoaeren alde otol ezazutela eskatzen dizute irakurle guztoi

Etxea: Chalet Landibar. Tolosa 1934'ko Ilbeitzak 14.

Iletak asteartez egin ziran Tolosa'ko Santa Maria eleiz nagusian.

Gazteiz'ko Gotzai jaun agurgarriak oi dituan barkamenak eman ditu.